



MARKEL EN KOMETA

Apirileko egun ilun eta euritsu bat bazen ere, Markel, 12 urteko gazte azkarra, irrikitan zegoen kalera atera eta hainbat hilabeteetan zehar itxaron izandako momentu zirraragarria bizitzeko. Markel, unibertsoaz maiteminduta zegoen eta hau aztertzea zen bere denbora-pasa gustukoena. Ia 3 hilabete igaro ziren jada Markel eta Maitanek, lehenengo honen lagun minak, denbora luze baterako euren txoko ezkutua bilakatuko zen auto erraldoi hura aurkitu zutela.

Ohetik altxatu eta berehala hasi zen Markel alde batetik bestera korrika, urduritasunak bere gorputza bereganatu zuen. Hainbatetan Maitaneren etxera deitu, gau hartarako behar izango zuten materiala lortu eta poltsan sartu, datu guztiak egiaztatu... Akats txikienak ere, plana zapuztu ahal zuen. Guzti hau, autoa aurkitu eta aste batzuen buruan, Markelek mundua aldatu zitzakeen aurkikuntza berezi bat egin zuenean du oinarri; hain zuzen ere kometa bat aurkitu zuenean! Baina kometa hau ez zen umeek jolasteko erabiltzen zutenak bezalakoa; honek, espazioan zehar izugarrizko abiaduran bidaiatzeko abilezia zuen, astro bat zen. Markelek, ordea, ez zituen froga nahikorik eta hauek lortzeko espedizio antzeko bat antolatu zuen Maitanerekin batera euren txoko ezkutuan. Hori dela eta prestakuntza guzti horiek.

Agian Markelentzat bere bizitzako egunik luzeena izan zen hori, ordea, bere amaierara iristen hasia zen. Markel eta Maitane euren txoko ezkutuan gaueko bederatzietan egoteak ziren, baina denbora igaro hala, Maitane ez zen agertzen. Denbora aurrera zihoan eta pentsatutako etxe-behatokia bere kabuz muntatzen hasi zen Markel. Arropaz eta mantaz egindako teilatua izan zen lehenengo urratsa, eta teleskopioa estrategikoki kokatzea azkena. Ia hamarrek ziren eta oraindik Maitane ez zen agertu; halako batean, ordea, soinu arraro bat entzun zuen atzealdean gure mutilak eta buelta eman bezain laster, bere laguna eskailera erraldoi batzuetatik igotzen ikusi zuen irristailu bat soinean zeramala. Denborarik ez galtzarren, ordea, ez zuen galderarik egin.

Bi gazteek autoa harriz inguratu zuten honen egonkortasuna finkatzeko, sua piztu zuten ez hozteko eta behin eta berriro plana errepikatzen zioten bata besteari: kometa ikusi bezain laster argazki mordoa atera eta teleskopioarekin ahalik eta zehetasun txikienak antzematea. Haatik, gaueko hamabiak ziren ia-ia eta ez zen kometaren arrastorik agertzen. Poliki-poliki, logura sentitzen hasi ziren bi lagunak eta hau garaitzen ahalegindu baziren ere, bata bestearen alboan eta suaren inguruan lokartuta amaitu zuten.

Hurrengo egunean, harrituta esnatu ziren Maitane eta Markel. Bata besteari begira gelditu ostean, ordea, barre algaraka hasi ziren: beste 3 hilabete itxaron beharko zituzten! Euren ustez, gazteak ziren oraindik eta denbora soberan zuten nahi beste espedizio egiteko, hori zela eta ez zegoen haserretzeko arrazoirik. Guztia batu eta etxera bueltatzea erabaki zuten.

Hala bazan ez bazan, sar dadila Leioako plazan.